



Bide zaila:

Ian eskubideen aldeko borroka Txinako zapata industrian

'Poliziak txakurrak solte utzi zituen greban eta guri oska egitea agindu zieten.' Txinako eskualde den Guandongoko langile batek egin zituen adierazpen hauek. Txinan, lan baldintzen urraketak ohikoak izaten jarraitzen dute oinetakoen industrian. Hau bezalako adierazpen asko bildu ziren 'Bide zaila: lan eskubideen aldeko borroka Txinako zapata industrian' 2015ean egindako txostenean. Marka europearrentzako lan egiten duten enpresetan ematen diren horrelako beste hainbat urraketari buruz hitz egiten dute. Hala nola: soldata baxuak, aparteko ordua derrigorrezkoak, segurtasuna eta osasuna bermatzeko babesa eza, estatu errepresioa grebak gelditzeko, kotizatutako ordainketa eza eta kalte-ordainketa baxuak.

Oinetakoen industriako lan eskubideak eta langileen egoera aztertzen du fitxa honek.

Oinetakoen ekoizpena Txinan

Nahiz eta Txinak beste herrialdeekin konparatuta legedi aurrerakoia izan, guzti hori gertatzen da. Hare gehiago, zapatagintzako enpresa gehienek badute, gaur egun, hornitzaileei zuzendutako arauen urraketak gutxitzeko kodeak.

Txina da, alde handiarekin, oinetakoen munduko ekoizlerik handiena: 2014ean bakarrik 15.700 milioi oinetako pare ekoitzi zituen.

Ekoizle gune nagusiak Fujianeko, Zhejiangeko eta Guandongeko itsas eskualdeetan egon dira tradizionalki. Baina itsas guneetako ekoizpen kostuak handitu direnez, enpresak barrualdeko zonaldeetarantz lekualdatu dira, Sichuanera adibidez.

Herrialde	Merkatu-kuota globala (%)	Pare (milioi)
1 Txina	64.6	15 700
2 India	8.5	2 865
3 Vietnam	3.7	910
4 Brasil	3.7	900
5 Indonesia	3.0	724
6 Pakistan	1.6	386
7 Turkia	1.3	320
8 Bangladesh	1.3	315
9 Mexiko	1.0	245
10 Itàlia	0.8	197

Hala ere, Txinako ekoizpen gune nagusia Guandong izaten jarraitzen du, baita oinetakoen sektorean ere. Oinetakoen fabrika gehienak Perlas ibaiaren delta inguruan pilatzen dira.

Zonaldeko ekoizpen gune garrantzitsuenak Heshan, Huidong eta Dongguan dira. Yue Yuen Industrial Holdings Limited, markazko kirol oinetakoen ekoizle nagusiak, Dongguaneko eskualdean ireki ditu fabrika gehienak.

Eskualdeetako industria banaketaren inguruan, 2010eko estatistikak bakarrik daude. Orduan, laruzko oinetakoen ekoizpenaren %75^a, hiru probintzian bakarrik banatzen zen: Zhejiangen, Guandongen eta Fujianen.

Lan eskubideen urraketa Txinako oinetakoen industrian

¿Egunean nolakoak dira Guandongeko fabriketako lan eskubideak? Jakiteko, Guandongeko hiru fabriketako 47 langileei egin genion elkarrizketa 2015eko bukaeran. Yuen Industrial Holdings Ltd., Stella International Holdings Ltd. Eta Panyu Lide Shoes Industry Co. Ltd. enpreseko langileei.

2. Irudia Oinetakoen eskualde ekoizle nagusiak Txinan ITURRIA: BEREZKO IKERKETA



Elkarrizketatutako pertsonen batz besteko adina 42 urtekoa zen: gazteenak 18 urte zeuzkan eta zaharrenak, 53; %79 emakumeak ziren. Geroz eta zaharragoak ziren langileak kontratatzen zituztela esan zuten batzuk, fabrikek gazteak kontratatzeke arazoak dituztelako. Yue Yuengo fabrikeko zortzi langilerekin hitz egin genuen, fabrikan hilabete gutxi batzuk zeramatenak. Zazpi 40 eta 50 urte bitarte zituzten. Langileriaren batz besteko adina handitzen ari dela dirudi beraz. Sindikatuen borroka gizarte-segurantzari eta, bereziki, erretiro-pentsioei zuzentzearen arrazoia azaldu dezake honek.


3. Irudia Oinetakoen ekoizle eskualde nagusiak Guandongen ITURRIA: BEREZKO IKERKETA



Derrigortutako lanak: Elkarrizketatutako arteen, 25ek (%52) aparteko orduak egiteko derrigortuak izan zirela esan zuten. Ezezkoa ematea laguntzen murrizketa, soldata gutxitzea eta ahozko gehiegikeriak zekarren. Aparteko orduen menpe daudela zioten askok, soldataren zati handi bat osatzen baitute. Horregatik askok etziren aparteko orduak egitera behartutak sentitzen, nahiz eta hauek hilean 30 ordu baino gehiago izan.

Emakumeekiko diskriminazioa : Elkarrizketatuetatik 25ek (%52) bakarrik adierazi zuten emakumeak amatasun baja eskuratzen zutela. Horietatik 9ek, gainera, soldata minimoa jasotzen zuten amatasun baja bitartean eta ez bataz besteko soldata, legeak behartzen duen bezala. 9ek ere zuzendaritzak etzuela emakumezkoak eta gizonezkoak berdin tratatzen esan zuten. 14ek (%30), horietatik 12 emakume, ahozko abusuak pairatu zituztela salatu zuten.

4. Irudia Aztertutako guneak ITURRIA: BEREZKO IKERKETA



Elkartzeko eta taldeko negoziatorako eskubidea:

Guangdonggo eskualde gobernua talde negoziatorako esparru-hitzarmen orokor bat egin zuen ezusteko grebak sahiesteko eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin. Baina Lobby eta elkarte industrialak taldeko negoziatioak errazteko disposizioak ukatu egin zituzten. Presioa eraginkorra izan zen: polemikoak ziren artikulu batzuk berrikusi ziren, arindu edo, ukatuak ere izan ziren. Haien orde besterik neurri batzuk hartu ziren industriarentzako egokiagoak zirenak. Horregatik onartutako legedia, urtarilaren lehenengotik indarrean, giza eskubideen aldeko elkarteek espero zuten bezain aurrerakoia etzen izan azkenean.

Elkarrizketatutako 43 pertsonen etzekiten nola aukeratzeko ziren ordezkari sindikalak. 37 (%79) akzio polizialen eta greben ikusleak izan dira haien fabriketan. Hala ere, sindikatuek etzuten parte hartu ezta antolakuntza ezta kriminalizatutako langileen defentsan. Aztertutako fabriken sindikatoek ez dute ezer egin, ordura arte, talde negoziatio prozesuak hasteko. Gure ikerketak ezagutarazten du *All China Federation of Trade Unions (ACFTU)*¹-a fabrika horietan ez dagoela edota bere legezko beharrak ez dituela ezagutzen.

Soldata duinak : Elkarrizketatuen bataz besteko soldata 3.033 yuanekoa zen (410 eurokoa). Baina elkarrizketek oinarriko beharrak asetzeko, langileek, 4.349 yuane (590 euro) soldata minimoa behar dutela adierazten dute. Kopuru hori Asia Floor Wage² kanpainia baino askoz altuagoa da, soldata duina 3.847 yuane ezartzen zuena (523 eurotan), baina herrialde osoko bataz bestekoaren arabera ezarri zen. Guangdongeko bizi maila garestiagoa da herrialde osoarekin konparatuz, eta ez hori bakarrik, gorantz jo du azkeneko urteotan.

Lan orduak : Askotan fabrikek ez dute estatu araudia errespetatzen. Elkarrizketatutako pertsonen egunean 10,6 ordu lan egiten zuten. 9ek bakarrik (%19) zuten zortzi orduko lan eguna eta 10ek (%21) 11 ordu baino gehiago lan egiten zuten.

Hu Jaunak³, 42 urtekoa.

- 5 urtez egin zuen lan Yue Yuengo fabrika batean, Dongguanen, pistolazko margolari gisa.
- Abisatu gabe bota zuten greba baten ondoren 2014ean.
- Hileko soldata: 2.900 yuan (391 euro).
- Lan orduak: hilean 212 (horietatik 36 apartekoak).

Pistolaren bidez margotzea lan zaila eta arriskutsua da pinturak eta bernizak sustantzia toxikoak dituztelako. Gas mingarrien artean ematen zuten egun osoan. Lankide bat leuzemiak jo zion denbora horretan.

2014ko apirilaren 14ean Yue Yuengo, Dongguanen, ehundaka langilek batu ziren greban eta Hu jaunak langileekiko polizien jipoiak ikusi zituen. Bere sakeleko telefonoa atera zuenean, polizia kamera batek Hu argazkiak ateratzen ari zela susmatu zuen. Horregatik bostpasei poliziek arrastaka eraman zuten, ostikadaka. Konortea galdu zuen orduan.

Komisarian indartsu jipoitu zuten berriro. Ondoren, zaurituta ospitalera eraman zuten. Zauriek bere bizia arriskuan jartzen etzutela ikusi zutenean, ohera lotu eta ospitaleko langileei tratatzea debakatu zieten. Hu jaunak ardura medikoa eskatu zuenean polizia batek buruan indarrez jo zuen konortea galduarazi ziona berriro. Beranduago, komisariara eraman zuten berriro galdeketa berri bat egiteko, ahozko abusuak pairatu zituen eta klinika sikiatriko batera eraman zuten. Bertan, ura ukatu zioten eta bere pisa edan behar izan zuten egarria asetzeko. Poliziak eta klinikako langileak indartsu maltratatu zuten. Gau osoa oheari lotuta eta jan barik, edan barik edota komunera joan gabe eman behar izan zuten.

Fabrikan, istilutsu eta grebaren burua izatea egoitzi zioten eta lanetik bota zuten. Etzuen kalte-ordainketarik jaso ez fabrikatik ezta poliziarengandik ere.

Gaur egun Hu jaunak oraindik pairatzen ditu zaurien kalteak, eragin zioten limitazio fisikoak ez diote lan berri bat aurkitzeko aukerarik ematen. Ia bi urte ondoren ametsgaiztoek ez diote lorik egiten uzten.

1 N.T. Euskaraz: "Txina (osoko) Sindikatuen Federazioa"

2 <http://asia.floorwage.org/what>

3 Langilearen babesarako ez da egiazko izena erabili

Osasuna eta segurtasuna: Osasunaren eta segurtasunaren inguruko legedi nazionalaren inplementazio arina izaten da normalean. Elkarrizketatutako hogeitahamasei langilek (%77) beren lan gunea desegokia ikusten zuten usain txarregatik, bentilazio eskasarengatik, beroarengatik, zarata eta makina arriskutsuengatik. Hogeitabederatzi langilek (%62) zutik edota eserleku deserosoetan lan egin behar zuten. Hogeitahamaika langilek (%61) produktu kimikoekin lan egiten zuten, baina bakarrik



hamasei (%34) izan ziren ohartaraziak produktuak manipulatzeko eragin zezakeen arriskuei buruz. Hare gehiago, Stella fabrikako langileak produktu kimikoak etiketarik gabe zeudela esan zuen. Elkarrizketatuen 8 pertsonak bakarrik (%17) jasotzen zuten osasun eta segurtasunari buruzko formakuntza modu erregularrean. Babeseko arropa gainera etzen nahikoa. Adibide gisa, arnas egiteko maskarak 8 orduz gehienez erabili beharko litzateke. Stella fabrikako langileak, ordez, maskara bakarra edo bi maskara jasotzen zuten aste beterako. Hogeitaseiek (%55) aitortu zuten haiek edo lankideren batek lanarekin lotutako osasun arazoak izan zituztela. Gaixotasun ohikoak benzenoak sortutako intoxikazioak eta produktu kimikoen kontaktuak sortutako azalako arazoak izan ziren. Hogeitahamar pertsonak (%64) haiek edota lankideren batek lanaren ondorioz lesioak pairatu zituztela aitortu zuten. Lesio ohikoak eskuetan ematen ziren, oinetakoak ekoizteko makinak eragindakoak.

Lekualdatzearengatik kalte-ordainketa : Gai garrantzitsua da hau Guandongoko zapata enpresak itxi egiten ari baitira, milaka pertsona kalera botaz, gertatu zen moduan, adibidez, Lideren fabrikari.

Lideko 13 langile elkarrizketatu genituen (10 emakume eta 3 gizon). Berrira filtraketa batengatik jaso zuten eta ez modu ofizialean. Langileek greba batekin erantzun zuten 2014ko abendutik 2015eko apirila arte. Zentzuzko kalte-ordainketak eskatzen zituzten. Grebak kobertura mediatiko handia izan zuen eta arrakastatzen hartu zen. Lide kalte-ordainak emateko konpromisoa hartu zuen baina gutxien ordaintzen saiatu zen. Hasieran enpresak 68 euro lan urte bakoitzarengatik ordaintzen saiatu zen baina lan egindako 5 urteren truke gehienez. Greba berri baterako deialdia egitea beharrezkoa izan zen Lidek



Txinako langileen grebarekiko elkartzuna adierazteko kontzentrazioa. ARGAZKIA: SACOM HONGKONG/FLICKR.COM

Argitalpenari buruzko informazioa:

Argitaratzailea: Federación SETEM
C. Gaztambide 50, 28015 Madrid
915499128
www.setem.org
comunicacion@setem.org

Bartzelonan argitaratua 2016eko maiatza

Egileak: Anton Pieper (Südwind e. V. Institut für Ökonomie und Ökumene, Alemania) eta Felix Xu (Globalization Monitor, Hong Kong)

Koordinazioa: Lena Bullerdieck (INKOTA-netzwerk, Alemania)
Itzulpena: Itziar Pérez (SETEM Nafarroa)

Edizioa: Itziar Pérez (SETEM Nafarroa), Alba Trepas (Federación SETEM)

Maketazioa: Concepte Gráfico



Oinetakoen ekoizpenaren langileen osasun eta segurtasun arazo gehienak, babesik gabe produktu kimiko toxikoak manipulatzeko ematen dira. ARGAZKIA: FRITZ HOFMANN

lan egindako sei urteren truke batz besteko soldatan oinarritutako kuota ordaintzeko konpromisoa hartzeko. Konpainiak etzituen eskaera guztiak onartu baina langileria nahikoak iruditu zitzaizkion.

Horregatik, Lideko langileria greba, lan legediak bermatutako gizarte zibilaren protesta arrakastatsuen adibide bezala ikusten da. Lideren kasua, enpresek haien ardurak saiesteko lekualdatzeaz nola baliatzen diren adierazten du. Langileak eskuetan duten ahalbide guztiak erabili behar dituzte beren eskubideak defendatzeko: bai bide legalak bai grebak ere.

Aholkuak: Lan baldintzetan hobekuntzak behar dira; bai ikertutako fabriketan, bai oinetakoen industrian, orokorrean, ere. Horregatik, premiaz aholkatzen dugu, Txinak elkarte askatasunaren inguruko Nazioarteko Lan Elkartearen 87. Konbentzioa onartu eta aplikatu dezala. Baita NLEren 98. Konbentzioa, talde negoziazioaren ingurukoa. Legez bermatu behar da sindikatu independenteak sortzeko eta kudeatzeko eskubidea. Langileak greba antolatzeko eskubidea izan behar du. Greben aurkako polizia indarkeria gaitzetsi behar da. Gainera, Guandongeko gobernuari aholkatzen diogu, langile gazteak babesteko, aparteko orduak debekatzea, beste eskualde batzuetan egin den modura. Behartutako lanaren arazoa, Txinan oinetako langileak soldata duina jasotzearen ondorioz bakarrik konponduko dela pentsatzen dugu, hala nola 8 orduko lan jardunaldia ezartzerakoan.

ALDATU ZURE ZAPATAK Europako 15 erakunde eta Asiako 3k osaturiko patzuegoa da. Defendatzen dugu oinetakoen industriako langileek eskubidea dutela soldata duina jasotzeko eta lanean osasuna eta segurtasuna babes dakizkien. Halaber, kontsumitzaileok eskubidea dugula produktu segurua eskuratzeko eta zapaten ekoizpen-prozesuan gardentasuna izateko.

Fitxa tekniko hau Europako Batasunaren laguntza ekonomikoarekin egin da. Fitxaren edukien gaineko erantzukizun osoa SETEMena da, eta edukiok ez dituzte inola ere Europako Batasunaren iritzirik islatzen.

